


Emakumeok* sistemari planto!

Si paramos todas, paramos todo

#EmakumeokPlanto



Martxoak 8 Greba feminista 2018

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



*Martxoaren 8a
mobilizazio eguna da,
emakumeok* kalea
hartuko dugu!*

Lanuzteak

Goizez

11:00 > 15:00

Arratsaldez

18:00 > 22:00

ADI MOBILIZAZIOEI!!



ELA sindikatuak ilusioz bat egiten du Nazioarteko mugimendu feministak Martxoaren 8rako deituriko emakumeon greba deialdiarekin. Emakumeok*, (* gure aniztasunean), greba honi tinko helduko diogu. Egun horretan geuk ere planto egingo dugu, sistema honek emakumeon lanik eta ekarpenik gabe funtzionatzen ez duela irudikatzeko. Gu gabe sistema eta planeta pikutara doaz!

Greba hau ez da ohiko lan greba bat; enpleguaren ardatzaz haratago, aurtengo greba feministak beste hiru greba ardatz izango ditu sistema hau eten nahi dugula adierazteko: zaintza, kontsumoa eta hezkuntza ereduari planto egingo diegu!

- Zergatik emakumeon greba?

Emakumeok gure historiaren protagonista izan nahi dugulako!

Prekarietateak emakumeok bereziki astintzen gaituelako.

Krisia egon edo ez, sistemaren koltxoi garelako!

Biziraupenerako ezinbestekoak diren etxeko eta zaintza lanak debalde egiten ditugulako.

Gizonezkoek baino 7500 euro gutxiago kobratzen dugulako urtean.

Etxeko eta zaintza lanak ez daudelako justuki banatuta.

Gure langabezia tasa altuagoa delako.

Kontratu partzialak kontziliaziorako neurri tranpak direlako emakumeontzat.

Botere postuetara iristeko askotariko oztopoak ditugulako.

Sexu jazarpena lantokietan ikusezina bada ere, egon badagoelako.

Indarkeria matxistak erailtzen gaituelako.

Eta zuk, benetan ez al duzu grebarako arrazoirik?

- Nola egingo dugu planto?

• Martxoaren 8an 11.00etatik 15.00etara eta 18.00etatik 22.00etara lanuzteak egingo ditugu.

• Egun osoan zehar Euskal Herriko hiri, herri zein eskualdeetan egingo diren mobilizazio ezberdinetan parte hartuko dugu.

• Etxean, plazan, lantokian, eskolan, hirietan, herrietan, baserrietan... Martxoaren 8a mobilizazio eguna da, emakumeok kalea hartuko dugu!